

2019
2023

# LEGEGINTZALDIAREN BALANTZEA

# BALANCE LEGISLATURA

eaj pnv



# Kaixo!

Lau urte igaro dira laudioarrok Laudio esnatzea helburu zuen proiektu ilusionagarri baten buru jartzeko konfiantza eman zenidatenetik. Lau urte gogor izan dira, eta horietan proiektuak, ideiak eta, batez ere, lan, gogo eta dedikazio handia eman ditugu.

Pandemia batekin borrokatu behar izan dugu, ordura arte ezezaguna zen birus batekin, COVID-19arekin, gure lehentasunak aldatzera eta egokitzera behartu gintuena. Baina Laudion zuen eragina arintzea lortu genuen, egon behar genuenen ondoan jarriz: gure saltokiak, gure ostalaritza, gure familiak eta gure enpresak.

Hori guztia, gainera, gure udalerria eraldatzeko eta leku erakargarri, jasangarri, solidario eta oparoago baterantz aurrera egiteko funtsezko proiektuak aurrera ateratzen ari ginen bitartean. Antzokia martxan jartzea, HAPOa berrikusten hastea, hainbat inbertsio erakartzea (tren-geltoki berria edo Nerbioi ibaia bideratzea), Hiri Mugikortasun Iraunkorreko Plana, emakumeak ahalduntzeko gunea, bide-garbiketa indartzea edo liburutegi berria martxan jartzea gobernu-talde honek testuinguru konplexu honetan aurrera ateratzea lortu duen proiektuen adibide batzuk baino ez dira. Laudioarrei entzunez eta hobekien egiten dakiguna landuz lortu dugu hori: jendearen alde eta jendearentzat lan egitea.

Horregatik, helburu argia duen proiektu honetan elkarrekin aurrera egiten jarraitzeko eskatzen dizuet: Laudio bizitzeko eta gozatzeko leku hobea izatea. Denon eta guztion artean.




Han pasado ya cuatro años desde que las y los laudioarras me distéis vuestra confianza para ponerme al frente de un ilusionante proyecto que tenía un objetivo claro: despertar Laudio. Han sido cuatro años intensos, en los que hemos aportado proyectos, ideas y, sobre todo, mucho trabajo, ganas y dedicación.

Hemos tenido que pelear con una pandemia, un virus hasta entonces desconocido, el COVID-19, que nos obligó a cambiar nuestras prioridades y a adaptarnos. Pero logramos mitigar su impacto en Laudio poniéndonos al lado de quienes debíamos estar: nuestros comercios, nuestra hostelería, nuestras familias y nuestras empresas.

Todo ello, además, mientras sacábamos adelante proyectos clave para transformar nuestro municipio y hacerlo avanzar hacia un lugar más atractivo, sostenible, solidario y próspero. La puesta en marcha del Antzokia, el inicio de la revisión del PGOU, la atracción de inversiones como la nueva estación de tren o el encauzamiento del río Nervión, el Plan de Movilidad Urbana Sostenible, la apertura de Lezeaga Aretoa como espacio para el empoderamiento de las mujeres, el refuerzo de la limpieza viaria o la puesta en marcha de la nueva biblioteca son solo unos ejemplos de los proyectos que este equipo de gobierno ha conseguido sacar adelante en un contexto tan complejo. Esto ha sido posible a base de escuchar a los y las laudioarras y dedicarnos a lo que mejor sabemos hacer: trabajar por y para la gente.

Por ello, os pido que sigamos avanzando juntas y juntos en este proyecto que tiene un objetivo claro: hacer de Laudio un lugar mejor para vivir y disfrutar. Entre todos y entre todas.

LEGEGINTZALDIKO

# ***aurrerapen nagusiak***

# ***Principales avances***

DE LA LEGISLATURA




1

Laudioko **Antzokia** errealitate bihurtu dugu, udalerriaren kulturarako eta garapen sozioekonomikorako funtsezko gunea.

Hemos hecho realidad el **Antzoki** de Laudio, un espacio clave para la cultura y el desarrollo socio-económico del municipio.

2

Gure **HAPO**a berrikusten hasi gara, Laudioko etorkizunerako oinarrizko dokumentua.

Hemos dado comienzo a la revisión de nuestro **PGOU,** un documento fundamental para el futuro de Laudio.





3

Udalerrian **kalitatezko enplegua** mantentzeko eta sortzeko apustua bikoiztu dugu: inoizko EPE handiena, enplegu-programak indartu, kontratazio-zerrendak, etab.

Hemos redoblado la apuesta para mantener y generar **empleo de calidad** en el municipio: la mayor OPE de la historia, refuerzo de programas de empleo, listas de contratación, etc.

4

Gure **merkataritzari eta ostalaritzari laguntzeko politikak** indartu ditugu, berrikuntzan, dinamizazioan eta Laudion gastuari eustean oinarritutako estrategia berri batekin.

Hemos reforzado las **políticas de apoyo** a nuestro **comercio y hostelería,** con una nueva estrategia basada en la innovación, la dinamización y la retención del gasto en Laudio.

5

Gure udalerria eta auzoak eraldatzeko **inbertsio publikoaren** aldeko apustua egin dugu: Españica etxea, Jesus Guridi, asfaltatuak, Lamuza, Landaluze, etab.

Hemos apostado por la **inversión pública** para la transformación de nuestro municipio y sus barrios: casa Españica, Jesús Guridi, asfaltados, Lamuza, Landaluze, etc.

6

Laudion **kirola egiteko eta aisialdirako espazio** berriak sortu ditugu: pumptrack, rokodromoa, gimnasio berria eta kantxa kiroldegian, tenis pista estalia Gardean, etab.

Hemos generado nuevos **espacios para la práctica deportiva y el ocio sano** en Laudio: pumptrack, rocódromo, nuevo gimnasio y cancha en el polideportivo, pista de tenis cubierta en Gardea, etc.

## 7

Laudioko **kultura-eragile nagusiak** inplikatu ditugu estrategia berri bat definitzeko eta Laudioko kultura-programa, jarduera eta azpiegituretan egindako inbertsioa handitzeko.

Hemos involucrado a los **principales agentes culturales** laudioarras para definir una nueva estrategia y ampliar la inversión en programas, actividades e infraestructuras culturales en Laudio.



## 8

Udalerriko **gizarte-politikak** indartu ditugu, laguntzak handituz eta gazteentzako, adinekoentzako, emakumeentzako eta beste kolektibo batzuentzako zerbitzu berriak abian jarriz.

Hemos reforzado las **políticas sociales** del municipio, aumentando la dotación de las ayudas y poniendo en marcha nuevos servicios para jóvenes, mayores, mujeres y otros colectivos.

## 9

Herritarren **entzuketa eta parte-hartzea** tokiko politikan txertatu dugu, arreta emateko bide berriekin, inkestekin, berrikuntza kolektiboko prozesuekin, kontseilu sektorialekin eta abarrekin.

Hemos incorporado la **escucha y participación** ciudadana a la política local, con nuevos canales de atención, encuestas, procesos de innovación colectiva, consejos sectoriales, etc.





## 10

**Inoizko inbertsio gehien** erakarri dugu Laudiora: 70 milioi euro baino gehiagoko inbertsioa egin dute beste erakunde batzuek gure herrian (Arabako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Gobernu Zentrala, Europar Batasuna).

Hemos logrado **la mayor atracción de inversiones** a Laudio de la historia: más de 70 millones de euros de inversión de otras instituciones en el municipio (Diputación Foral de Álava, Gobierno Vasco, Gobierno Central, Unión Europea).

LAUDIO ERALDATZEKO

# ***proiektu eta ekimenak:***

GURE GOBERNU-KONPROMISOAK BETETZEN DITUGU

## Gure auzoak berriztea

Gure auzoak eremu erakargarriak, zainduak eta berrituak izan daitezen inbertitzen dugu, auzokideen beharretara egokituta dauden kalitatezko zerbitzu publikoekin.

# ***Proyectos e iniciativas***

PARA TRANSFORMAR LAUDIO. CUMPLIMOS NUESTROS COMPROMISOS DE GOBIERNO

## Regeneración de nuestros barrios

Invertimos para que nuestros barrios sean lugares atractivos, cuidados y renovados, con servicios públicos de calidad y adaptados a sus necesidades.



- URArekin lankidetza San Joan erreka bideratzeko obrak egiteko, etxebizitza libre eta sozial berriak eraikitzeko.

  Colaboración con URA en la ejecución de las obras de encauzamiento del arroyo San Juan, que posibilitarán la construcción de nuevas viviendas libres y sociales.

- URAk kudeatutako uholdeen aurrean udalerria babesteko Nerbioi ibaia bideratzeko obrak hastea.

  Inicio de las obras de encauzamiento del río Nervión para la defensa del municipio frente a inundaciones, gestionadas por URA.

- Kamaraka kaleko espaloiak berritzea eta egokitzea.

  Renovación y adaptación de aceras en la calle Kamaraka.

- 1,3 milioi euroko inbertsioa kaleak eta bideak asfaltatzeko (Ellakuri, Gardea, Larrazabal, Atxarte, Kamaraka, Gardeagotxi, Arantzar, etab.).

  Inversión de 1,3 millones de euros en el asfaltado de calles y caminos (Ellakuri, Gardea, Larrazabal, Atxarte, Kamaraka, Gardeagotxi, Arantzar, etc.).

- Jesus Guridiren berrurbanizazio integraleko proiektua idaztea.

  Redacción del proyecto de reurbanización integral de Jesús Guridi.

- Lanzaluze eta Arrañoko kaleak urbanizatzeko proiektua idaztea.

  Redacción del proyecto de urbanización de calles en Lanzaluze y Arraño.

- Altzarrate zubia ordeztea.

  Sustitución del puente Altzarrate.

- Aparkaleku berriak sortzea Laudioko auzoetan (Kamaraka, Areta, Apaloeta, Zumalakarregi, Industrialdea, etab.).

  Generación de nuevas zonas de aparcamiento en los barrios de Laudio (Kamaraka, Areta, Apaloeta, Zumalakarregi, Industrialdea, etc.).

- Lamuza parkean, Sagastin eta Oketa-Pagolar kaleetan arrapala irisgarriak eraikitzea.

  Construcción de rampas accesibles en Parque Lamuza y calle Lamuza, Sagasti-El Manzanal y Oketa-Pagolar.





- Tierra de Ayala kaleko sarbidea berritzea eta hobetzea.

  Renovación y mejora del acceso a Tierra de Ayala.

- Españica etxea eraistea.

  Derribo de la Casa Españica.

- ADIFekin lankidetza tren-geltokiaren irisgarritasuna hobetzeko.

  Colaboración con ADIF para la mejora de la accesibilidad en la estación de tren.



## Landa eremua eta berdeguneak

Laudioko landa-eremua eta eremu berdeak indartu ditugu, hiriguneekin integratuz eta garapen ekonomiko eta sozialerako gune gisa sustatuz.

## Medio rural y espacios verdes

Recuperamos el ámbito rural y verde laudioarra, lo integramos con los núcleos urbanos y lo potenciamos como un espacio de desarrollo económico y social.



- Eraztun Berdearen proiektua garatzea: 42 kilometroko ibilbide berdeak, gure landa- eta natura-ondareari balioa emateko.

  Desarrollo del proyecto de Anillo Verde: 42 kilómetros de itinerarios verdes para poner en valor nuestro patrimonio rural y natural.

- Ermualde biziberritzeko planarekin jarraitzea: aparkaleku berria, ostalaritzako lokalaren kudeaketa, bisita gidatuak, indusketak estaltzeko obrak, gazte-auzolandegiak, etab.

  Continuación con el plan de revitalización de Ermualde: nuevo aparcamiento, gestión del local de hostelería, visitas guiadas, obras de cubrición de excavaciones, campos de trabajo juveniles, etc.

- Arrañon larreak kudeatzeko plana abian jartzea.

  Puesta en marcha del Plan de gestión de pastizales en Arraño.

- “Mostatxa-Pagolar” larrea ixteko instalazioa.

  Instalación de cierre en el pastizal de “Mostatxa-Pagolar”.

- Eguzki-farolak eta postontziak jartzea baserrietan eta landa-eremuetan (Garate, Izagirre, Zugatzu, Lusurbeilanda, Goienuri, Altamira, etab.).

  Instalación de farolas solares y buzones en caseríos y zonas rurales (Garate, Izagirre, Zugatzu, Lusurbeilanda, Goienuri, Altamira, etc.).



- Larrazabalgo landa-bideetan arekak hobetzeko eta egokitzeko obrak.

  Obras de mejora y acondicionamiento de cunetas en caminos rurales en Larrazabal.

- Onura publikoko mendietan baso-berritzeak egitea, espezie autoktonoak lehenetsiz.

  Realización de repoblaciones forestales en montes de utilidad pública, primando especies autóctonas.



## Hirigintza, mugikortasuna eta ingurumena

Laudio berri bat eraikitzeko Bidean gara, egungo errealitatera egokitua, iraunkorra, berdea eta kohesionatua.

## Urbanismo, movilidad y medio ambiente

Construimos un nuevo Laudio, adaptado a la realidad actual, sostenible, verde y cohesionado.



- 1995etik indarrean dagoen Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO) berrikusteko lanei hasiera ematea.

  Inicio de los trabajos para la revisión del Plan General de Ordenación Urbana (PGOU), en vigor desde 1995.

- Laudioko Hiri Mugikortasun Iraunkorreko Plana egitea.

  Elaboración del Plan de Movilidad Urbana Sostenible de Laudio.

- Laudioko Espazio Publikoaren erabilera arautzen duen Ordenantza onartzea (terrazak, bide publikoko jarduerak, pasabideak, etab.).

  Aprobación de la Ordenanza reguladora del Espacio Público de Laudio (terrazas, actividades en vía pública, vados, etc.).

- Goikoplazako bizitegi- eta merkataritza-ingurunearen garapenean aurrera egitea: 2. eta 3. faseak gauzatzea (etxebizitza libreak eta tasatuak) eta 4. eta 5. faseak desblokeatzea.

  Avance en el desarrollo del entorno residencial y comercial de Goikoplaza: ejecución de fases 2 y 3 (viviendas libres y tasadas) y desbloqueo de fases 4 y 5.




- “Laudio 30” kontzeptua ezartzea, herrian zeharko trafikoa baretzeko: abiadura-kontrola, bizikletentzako erreiak, etab.

  Implantación del “Laudio 30” para el calmado del tráfico en la trama urbana: control de velocidad, ciclocalles, etc.

- Igogailuak jartzeko ordenantza berria onartzea, etxebizitza-parkea hobetzen errazteko.

  Aprobación de la nueva Ordenanza para la instalación de ascensores, facilitando la mejora del parque de viviendas.

- Obra txikietarako izapideak murriztea, aldez aurreko jakinarazpenaren bidez.

  Reducción de trámites para obras menores a través de la comunicación previa.



## Kalitatzeko zerbitzu publikoak

Zerbitzu publikoen eskaintzan bikaintasuna bilatzeko lan egiten dugu, Laudioko eta laudioarren beharrei buruzko etengabeko hausnarketa-eskemari jarraituz.

## Servicios públicos de calidad

Trabajamos para buscar la excelencia en la prestación de servicios públicos, bajo un esquema de reflexión continua sobre las necesidades de Laudio y su ciudadanía.




- Laudioko osasun-zentro berrirako proiektua idaztea.

  Redacción del proyecto para el nuevo centro de salud de Laudio.

- Espazio publikoak garbitzeko kontratu berria, Laudioko auzo guztietan garbiketa indartuz.

  Nuevo contrato de limpieza viaria, con un refuerzo de la limpieza en todos los barrios de Laudio.

- Jose Matia, Maestro Elorza eta Zubiko Kurajon hiri-hondakin solidoen bilketa neumatikoa abian jartzea.

  Puesta en marcha de la recogida neumática de residuos sólidos urbanos en José Matía, Maestro Elorza y Zubiko Kurajo.

- Txakurren aisialdirako guneak instalatzea: Bidezarreta eta Altzarrate.

  Instalación de zonas de esparcimiento canino: Bidezarreta y Altzarrate.

- 2 milioi euro baino gehiagoko inbertsioa udalerriko saneamendu- eta hornidura-sareak hobetzeko: Landaluze, San Joan, San Bartolome, Beldui, Virgen del Carmen-Nerbioi, Lamuza, etab.

  Inversión de más de 2 millones euros en la mejora de las redes de saneamiento y abastecimiento del municipio: Landaluze, San Juan, San Bartolomé, Beldui, Virgen del Carmen-Nervión, Lamuza, etc.

- Nerbioi ibaia eta Laudioko errekak garbitzeko kanpainak egitea.

  Ejecución de campañas para la limpieza del río Nervión y arroyos.

- Gobernu zentralak kudeatutako hondakin-uren araztegia eraikitzeko obren hasiera.

  Inicio de las obras de construcción de la depuradora de aguas residuales, gestionadas por el Gobierno central.

- Errautsak isurtzeko gune bat sortzea hilerrian.

  Creación de una zona de vertido de cenizas en el cementerio.



## Merkataritza eta ostalaritza

Merkataritza eta ostalaritzaren izaera estrategikoa indartzeko lan egiten dugu, Laudioko garapen sozial eta ekonomikoaren eragile gisa.

## Comercio y hostelería

Trabajamos para reforzar el carácter estratégico del comercio y la hostelería como motor de desarrollo social y económico de Laudio.



- Hutsik dauden lokalak alokatzeko dirulaguntzak abiaraztea.

  Lanzamiento de las ayudas para el alquiler de locales vacíos.

- Laudio Berrikusi proiektua abian jartzea, Laudioko merkataritza biziberritzeko, Eusko Jaurlaritzarekin, Arabako Foru Aldundiarekin eta APILLekin lankidetzan.

  Puesta en marcha del proyecto Laudio Berrikusi para la revitalización comercial de Laudio, en colaboración con Gobierno Vasco, Diputación Foral de Álava y APILL.

- Laudioko Turismo Bulegoa irekitzea.

  Apertura de la Oficina de Turismo de Laudio.

- APILLekiko lankidetza indartzea, Udalak emandako dirulaguntzaren zenbatekoa bikoiztuz.

  Refuerzo de la colaboración con APILL, duplicando el importe aportado por el Ayuntamiento.

- Hiri Ekonomiako Kontseilua eratzea, sektoreak udalaren erabakietan parte hartzeko organo gisa.

  Constitución del Consejo de Economía Urbana, un órgano de participación para el sector.

- Baserritarren merkatua sendotzea, presentzia ostegun eta larunbatetan finkatuz.

  Consolidación del mercado de baserritarrak, fijando la presencia en jueves y sábados.



- Laudioko Garapen Turistikorako Plana definitzea, naturan, kulturan eta gastronomian oinarrituta.

  Definición del Plan para el desarrollo turístico de Laudio, basado en la naturaleza, la cultura y la gastronomía.

- Merkataritza eta ostalaritza dinamizatzeko kanpainak eta ekitaldiak garatzea (Laudioko Altxorrak, bonuak, ekitaldiak, etab.).

  Desarrollo de campañas y eventos de dinamización comercial (Laudioko Altxorrak, bonos, eventos, etc.).

- Terrazak instalatzea arautzen duen ordenantza berria onartzea.

  Aprobación de la nueva Ordenanza reguladora de instalación de terrazas.

- Merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen sektorerako laguntzak COVID-19aren pandemian zehar.

  Ayudas para el sector comercial, hostelero y servicios durante la pandemia por COVID-19.



## Enpresak eta enplegua

Industria moderno eta aurreratu baten aldeko apustua egiten dugu, etorkizuneko erronkei aurre egiteko prestatua eta kalitatezko enplegua sortzeko gaitasuna duena.

## Empresas y empleo

Apostamos por una industria moderna y avanzada, preparada para afrontar los retos del futuro y con capacidad de generación de empleo de calidad.



- Laudioko gazte langabeak udalerriko enpresetan kontratatzeko dirulaguntzak martxan jartzea.

  Ayudas a la contratación de personas jóvenes desempleadas de Laudio en empresas del municipio.

- Aiaraldeko Berehalako Jarduera Plana egiten parte hartzea.

  Participación en la elaboración del Plan de Actuación Inmediata de Aiaraldea.

- Laudioko Lan Eskaintza Publiko (EPE) garrantzitsuenaren deialdia: 66 plaza.

  Convocatoria de la Oferta Pública de Empleo (OPE) más importante de la historia de Laudio: 66 plazas.

- Laudioko empresa txiki eta ertainen eta industria-enpresen elkarte nagusia den Laudio Groupi emandako laguntza indartzea.

  Refuerzo del apoyo a Laudio Group, la principal asociación de PYMEs y empresas industriales de Laudio.

- Enplegu-programak indartzea: 700.000 euroko inbertsioa (ibaia garbitzea, lorezaintza, igeltserotza, herrilaguntzaileak, etab.).

  Refuerzo de los programas de empleo para colectivos vulnerables: inversión de 700.000 euros (limpieza del río, jardinería, albañilería, herrilaguntzaileak, etc.).

- Laudio Glass Hub: Laudio beira ekoizteko Europako eskualde aitzindari gisa kokatzeko ekimen estrategikoa.

  Laudio Glass Hub: una iniciativa estratégica para posicionar Laudio como región europea pionera en producción de vidrio.

- ETEak eta enpresak indartzeko programa: prestakuntza, Hazinnova, ekintzaileetzako eta berrikuntzako ekosistema, etab.

  Programa de fortalecimiento de PYMEs y empresas: formación, Hazinnova, ecosistema de emprendimiento e innovación, etc.

- Aiara Industrial Lab martxan jartzeko lankidetza, Arabako Foru Aldundiarekin eta Aiaraldeko udalekin.

  Colaboración en la puesta en marcha de Aiara Industrial Lab, con la Diputación Foral de Álava y los Ayuntamientos de Aiaraldea.

- Industrialdeko eta Arzako poligonoak hobetzeko obrak egitea (asfaltatzea, espaloiak, argiztapena, aparkalekua, etab.).

  Ejecución de obras de mejora de los polígonos de Industrialdea y Arza (asfaltado, aceras, iluminación, aparcamiento, etc.).



## Kultura, euskara eta identitatea

Kultura, sorkuntza eta gozamen kulturala sustatu ditugu herritarren artean, gure identitate laudioarrari balioa emanez.

## Cultura, euskara e identidad

Fomentamos la cultura, la creación y el disfrute cultural entre la ciudadanía, poniendo en valor nuestra identidad laudioarra.



- Kultura-gune berriak: liburutegi berria irekitzea (ordutegi zabalagoa eta asteburuetan irekita), Aretako Kultura Etxea erostea (auzoko kultur gune gisa sendotuz) eta Lamuzako parke berriaren proiektuan laguntzea.

  Nuevos espacios culturales: apertura de la nueva biblioteca (más horario y fines de semana), adquisición de la Kultura Etxea de Areta (consolidación como espacio cultural del barrio) y colaboración en el proyecto del nuevo Parque de Lamuza.

- 2018-2022 aldirako Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoa guztiz ezartzea.

  Implantación plena del Plan Estratégico para la Normalización del Uso del Euskera 2018-2022.



- Gure ondareari eta nortasunari buruzko informazio-panelak jartzea Laudioko leku seinalatuetan.

  Instalación de paneles informativos sobre nuestro patrimonio e identidad en lugares señalados de Laudio.

- Kasinoan ekipamendu eszeniko berria instalatzea (argiak, soinua, agertokia, etab.).

  Instalación de nuevo equipamiento escénico en el Casino (luces, sonido, escenario, etc.).

- Sanrokeak jaien eredu berri bat sendotzea, parte-hartzaileagoa eta ekitaldi gehiagorekin.

  Consolidación de un nuevo modelo de fiestas de San Roque, más participativo y con más actos.



- Jose Arrueren irudia omentzea (estatua berria, biniloak, erakusketa, hitzaldiak, etab.).

  Rendición de homenajes a la figura de José Arrue (nueva estatua, vinilos, exposición, conferencias, etc.).

- Kultura- eta jai-taldeei ematen zaizkien dirulaguntza izendunak eta lehia askekoak indartzea.

  Incremento de las subvenciones nominativas y de libre concurrencia a grupos culturales y festivos.

- Antzokiko obren hasiera, Laudioko eskari historiko nagusietako bat.

  Inicio de las obras del Antzoki, una de las principales demandas históricas de Laudio.

- Laudioko berbei eta mito eta tradizioei buruzko liburuak sortzea eta zabaltzea.

  Creación y difusión de los libros sobre palabras y mitos y tradiciones de Laudio.

- Urtean zehar kultura-programak indartzea: Kultudaberria, Kultuda, Udazken Musikatua, Goxo Gabonak, etab.

  Refuerzo de los programas culturales durante el año: Kultudaberria, Kultuda, Udazken Musikatua, Goxo Gabonak, etc.

- Euskararen erabileraren aldeko kanpaina eta ekitaldietan parte hartzea (Korrika, Araba Euskaraz, Euskaraldia, etab.).

  Participación en campañas y eventos en favor del uso del euskera (Korrika, Araba Euskaraz, Euskaraldia, etc.).




- Laudioko Kulturaren lehen Plan Estrategikoa onartzea, Laudioko kultura-sektoreko eragileekin landura eta Kultura Kontseilua abian jartzea.

  Aprobación del primer Plan Estratégico de Cultura de Laudio, trabajado con agentes del sector cultural laudioarra y puesta en marcha del Consejo de Cultura.

- Udal-langileen hizkuntza-eskakizunak egokitzea, Euskadiko euskalduntze-indize handienetako bat izanez.

  Adecuación de perfiles lingüísticos del personal municipal, contando con uno de los índices de euskaldunización más altos de Euskadi.

- Aldeaquemadarekin senidetzea.

  Hermanamiento con Aldeaquemada.

- Merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu-enpresetarako euskara plan estrategikoa.

  Plan estratégico de euskera para comercio, hostelería y empresas de servicios.



## Kirola eta aisialdi osasuntsua

Laudioko herritarren artean kirola egitea sustatzen dugu, haien osasuna eta bizi-kalitatea hobetzeko bitarteko gisa.

## Deporte y ocio saludable

Animamos a la práctica deportiva entre la ciudadanía laudioarra, como medio para mejorar su salud y calidad de vida.




- Pumptrack pista eraikitzea.

  Instalación de la pista de pumptrack.

- Latiorroko frontoian rokodromo-boulder bat sortzea.

  Creación de un rocódromo-boulder en el frontón de Latiorro.

- Laudioko skatepark-a berritzeko lanen hasiera.

  Inicio de los trabajos para la renovación del skatepark de Laudio.

- Laudio txirrindularitzako Euskal Itzuliaren etapen amaiera eta irteera izatea lortu dugu.

  Laudio como final de etapa y salida de la Euskal Itzulia de ciclismo.

- Laudioko kirol-ekitaldiak babestea eta antolatzea (ziklo-krosa, orientazio-proba, krosa, atletismo-probak, futbol-txapelketak, etab.).

  Patrocinio y organización de eventos deportivos en Laudio (ciclocross, prueba de orientación, cross, pruebas de atletismo, torneos de fútbol, etc.).

- Lamuza kiroldegiko kantxako zorua berritzea.

  Renovación del suelo de la cancha del Polideportivo Lamuza.

- Gardeako frontoian tenis pista estalia sortzea.

  Creación de la pista de tenis cubierta en el frontón de Gardea.

- Lamuza kiroldegiko gimnasioa osorik berritzea.

  Renovación integral del gimnasio del Polideportivo Lamuza.

- Gardeako gizarte- eta kirol-zentroan hobekuntzak: irekitzeko ordutegiak, ostalaritza-lokala, online erreserba, etab.

  Mejoras en el centro social y deportivo de Gardea: horarios de apertura, local de hostelería, reserva online, etc.

- Kirol-taldeentzako dirulaguntza izendunak eta lehia askekoak indartzea.

  Incremento de las subvenciones nominativas y de libre concurrencia a grupos deportivos.


eaj pnv



## Gizarte babesa eta adinekoak

Gizarte irekia, solidarioa eta inklusiboa eraikitzen dugu, kolektibo guztiek beren bizi-proiektuak garatu ahal izateko aukerekin.

## Protección social y mayores

Construimos una sociedad abierta, solidaria e inclusiva, con oportunidades para que todos los colectivos puedan desarrollar sus proyectos de vida.



- Kolektibo kalteberentzako arreta eta laguntza mekanismoak indartzea: Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (+% 55) eta Sostengu Laguntzen Udal Programa (+% 15) indartzea.

  Refuerzo de los mecanismos de atención y ayuda a colectivos vulnerables: refuerzo de las Ayudas de Emergencia Social (+55 %) y del Programa Municipal de Ayudas de Sostenimiento (+15 %).

- Bakardadeak-Bakardadeen eskola martxan jartzea, nahi ez den bakardadeari aurrea hartzeko Arabako lehen eskola.

  Puesta en marcha de Bakardadeak-Escuela de Soledades, la primera escuela alavesa de prevención contra la soledad no deseada.

- Bizi-jardueren Orientazio Zerbitzua (BJOZ) abian jartzea, gure arreta fisikoa eta emozionala emateko gunea.

  Puesta en marcha del Servicio de Orientación de Actividades Vitales (SOAV), un espacio para la atención física y emocional de nuestras personas mayores.

- Ezohiko laguntzen programak abian jartzea COVID-19aren pandemian.

  Puesta en marcha de programas de ayudas extraordinarias durante la pandemia por COVID-19.

- Adikzioen Plan berria onartzea, prebentzio-ekimenak indartuz.

  Aprobación del nuevo Plan de Adicciones, reforzando las iniciativas de prevención.



- Bakarrik bizi diren udalerriko 80 urtetik gorako pertsonei deiak egiteko zerbitzua.

  Servicio de llamadas a personas mayores de 80 años del municipio que viven solas.

- Sant Rokezar adineko pertsonentzako zentroaren espazioa handitzea.

  Ampliación del espacio del centro de personas mayores de Sant Rokezar.




## Berdintasuna eta feminismoa

Laudion emakumearen ahalduntzea indartzen dugu, erabateko eta eremu guztietan ematen den berdintasunaren aldeko apustua eginez.

## Igualdad y feminismo

Fortalecemos el empoderamiento de la mujer en Laudio, apostando por la igualdad plena y en todos los ámbitos.



- Sexu-aniztasunari balioa emateko jarduerak antolatzea: LGTBIQ+ diagnostikoa eskualdean, maiatzaren 17ko eta ekainaren 28ko kanpainak, etab.

  Organización de actividades para la puesta en valor de la diversidad sexual: diagnóstico LGTBIQ+ en la comarca, campañas de 17 de mayo y 28 de junio, etc.

- Lezeaga Aretoa irekitzea, Laudioko emakumeen eta emakumeentzako gunea.

  Apertura de Lezeaga Aretoa, un espacio por y para las mujeres de Laudio.

- IV. Laudioko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana onartzea.

  Aprobación del IV. Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres en Laudio.

- Laia Eskola: Laudioko emakumeen jabekuntzarako eta berdintasunerako eskola.

  Laia Eskola: escuela para la igualdad y el empoderamiento de las mujeres de Laudio.



- Laudioko kirolean berdintasuna sustatzeko estrategia definitzea.

  Definición de una estrategia para la igualdad en el deporte de Laudio.

- Indarkeria matxista prebenitzeko eta horri aurre egiteko protokolo berriak definitzea (prestakuntza, prebentzioa jaietan, etab.).

  Definición de nuevos protocolos para prevenir y actuar frente a la violencia machista (formación, prevención en fiestas, etc.).

- Genero-ikuspegia txertatzea udal-kontratazio guztietan.

  Incorporación de la perspectiva de género a todas las contrataciones municipales.



## Haurrak eta gazteak

Etorkizuneko belaunaldiak prestatzen ditugu, herrian errotzea erraztuko duten aukerak sortuz.

## Infancia y juventud

Preparamos a las generaciones del futuro, generando oportunidades que faciliten su arraigo en el municipio.



- Haurrentzako parke berria Lamuza parkean.

  Nuevo parque infantil en el Parque Lamuza.

- Aretako Fabian Legorburu ikastetxeko patioa irekitzea arratsaldez eta asteburuetan.

  Apertura del patio del colegio Fabián Legorburu de Areta por las tardes y fines de semana.

- Gazteen artean sormena eta aisialdi osasungarria sustatzeko jarduerak eta ekimenak programatzea: Gazteon, Rockein, negulekuak, zinema zikloa, tailerrak, etab.

  Programación de actividades e iniciativas para fomentar la creatividad y el ocio saludable entre la juventud: Gazteon, Rockein, negulekuak, ciclo de cine, talleres, etc.

- Obrak ikastetxeetan: 600.000 eurotik gorako inbertsioa Laudioko ikastetxe publikoak hobetzeko (karpak jartzea, asfaltatzea, leihoak aldatzea, etab.).

  Obras en colegios: inversión de más de 600.000 euros para la mejora de los colegios públicos de Laudio (instalación de carpas, asfaltados, sustitución de ventanas, etc.).

- Kaleko hezitzailearen figura indartzea, Laudioko gazteekin harreman zuzenagoa izateko eta adikzioak prebenitzeko.

  Refuerzo de la figura de educador/a de calle, para un contacto más directo con la juventud laudioarra y prevenir adicciones.

- Gazteen artean eta, bereziki, emakume gazteen artean zientzia eta teknologia sustatzeko Bizilabe proiektua.

  Proyecto Bizilabe para el fomento de la ciencia y la tecnología entre la juventud y especialmente las mujeres jóvenes.

- Udalerriko gazte langabetuak kontratatzeko zerrenda berriak osatzea Udalean.

  Conformación de nuevas listas de contratación en el Ayuntamiento para personas jóvenes desempleadas del municipio.

- Aldaiko haur-parkea estaltzeko prozesuaren hasiera.

  Inicio del proceso para cubrir el parque infantil de Aldai.

- Alokairurako laguntzak abiaraztea, laudioar gazteen emantzipazioa errazteko.

  Lanzamiento de las ayudas al alquiler para facilitar la emancipación de jóvenes laudioarras.

- Gazteleku berria liburutegi zaharrean irekitzeko proiektua idaztea.

  Redacción del proyecto para la apertura del nuevo Gazteleku en la antigua biblioteca.



## Herritarrak entzutea eta kudeaketa ona

Ondo kudeatutako udal arin, moderno eta gardena eraiki dugu, laudioarrak ekintzaren ardatz dituena.

## Escucha ciudadana y buena gestión

Construimos un Ayuntamiento bien gestionado, ágil, moderno y transparente donde las y los laudioarras son el centro de la acción.




- Herritarrei Arreta Emateko Zerbitzua berritzea: itxaronaldiak murriztea, aldez aurretik hitzordua hartzeko aukera, espazioaren berrantolaketa, itxarongunea, etab.

  Renovación del Servicio de Atención Ciudadana: reducción de tiempos de espera, posibilidad de cita previa, reordenación del espacio, zona de espera, etc.

- Udal-izapideak errazteko egoitza elektroniko berria.

  Nueva sede electrónica para facilitar los trámites municipales.

- Auzoko zinegotzien figurak abian jartzea.

  Puesta en marcha de las figuras de Concejales y Concejalas de barrio.

- Herritarren partaidetzarako Erregelamendua onartzea, parte hartzeko bideak eta foroak sendotzen dituena.

  Aprobación del Reglamento de participación ciudadana, que consolida los canales y foros de participación.

- Aurrekontu parte hartzaileen urteko prozesuak: milioi bat euro herritarren proiektuetarako.

  Procesos anuales de presupuestos participativos: 1 millón de euros para proyectos ciudadanos.

- Ordenantza fiskalak berrikustea eta onartzea, fiskalitate bidezkoagoa eta progresiboagoa eraikiz.

  Revisión y aprobación de las Ordenanzas fiscales, construyendo una fiscalidad más justa y progresiva.

- Herritarren app bat aktibatzea Udalari gorabeherak helarazteko.

  Activación de una app ciudadana para trasladar incidencias al Ayuntamiento.

- Aldian behingo inkestak eta partaidetza-prozesuak egitea.

  Realización de encuestas periódicas y procesos participativos.

- Legegintzaldiko urte bakoitzean aurrekontu bat onartzea, garaiz eta behar bezala, funtsezko proiektuak garatzea ahalbidetuz.

  Aprobación de un presupuesto cada año de legislatura, en tiempo y forma, posibilitando el desarrollo de proyectos clave.

- Tokiko 2030 Agenda eta Laudioko Hiri Agenda onartzea.

  Aprobación de la Agenda 2030 local y la Agenda Urbana de Laudio/Llodio.

- Kiosko bat instalatzea HAZen izapideak modu autonomoan egiteko.

  Instalación de un kiosko para la realización de trámites de manera autónoma en el SAC.

- Europako Kontseiluak Laudioko Udala aintzatestea Gobernantzaren Bikaintasunaren Europako Zigiluarekin.

  Reconocimiento del Consejo de Europa al Ayuntamiento de Laudio con el Sello Europeo de Excelencia en la Gobernanza.

## *Inbertsioak*
FINANTZATZEA ETA ERAKARTZEA

FINANCIACIÓN Y ATRACCIÓN DE
## *inversiones*



Legealdi konplexu honetan, gure ilusio, gogo eta gaitasun guztiekin lan egin dugu 2019an gure auzokideen aurrean hartu genituen konpromiso guztiak aurrera atera ahal izateko, baita 4 urte hauetan sortu diren beste proiektu eta ekimen batzuk ere, gehienak laudioarrek bileretan, batzarretan, inkestetan, komunikazio-kanaletan edo kalean planteatu dizkiguten ideiei esker. Guztiei entzun diegu, erabakiak hartu ditugu, batzuetan zailak, eta zintzotasunez eta gardentasunez kudeatu ditugu.

Eta hori guztia, betiere, gure diru-sarreren eta gastuen arteko oreka bilatuz, zerga-sistema bidezkoago batekin, finantza jasangarriekin eta aurrekontu onbideratuarekin. Beste erakunde batzuek inbertitzeko Laudioren aldeko apustua egitea lortzeko egin dugun lanari esker, besteak beste.

Harro egon gaitezke esateaz Eusko Jaurlaritzak, Europar Batasunak eta gainerako erakundeek gure udalerriari begiratu diotela inbertsioak egiteko edo gure proiektuak finantzatzen laguntzeko, eta 4 urte hauetan honako hauek lortu dituztela:

- Erkidegoko, Estatuko eta Europako dirulaguntzak, Antzokia bezalako proiektu garrantzitsuetarako, Abastos plaza birmoldatzeko, gure saneamendu-sareak berritzeko edo gure ondarea birgaitzeko.
- Laudiora beste erakunde batzuen inbertsioak erakartzea 70 milioi euro baino gehiagorako, besteak beste, osasun-zentro berria eraikitzeko, tren-geltokia berritzeko, Nerbioi ibaia bideratzeko eta Altzarrate zubia ordezkatzeko.






Ha sido esta una legislatura compleja, en la que hemos trabajado con toda nuestra ilusión, ganas y capacidades para poder sacar adelante todos los compromisos que asumimos ante nuestros vecinos y vecinas en el año 2019, además de otros proyectos e iniciativas que han ido surgiendo a lo largo de estos 4 años, la mayoría de ellos gracias a las ideas que los y las laudioarras nos han ido planteando en reuniones, asambleas, encuestas, canales de comunicación o en la calle. Hemos escuchado a todos y a todas, tomado decisiones, a veces difíciles, y gestionado con honestidad y transparencia.

Y todo ello buscando siempre un equilibrio entre nuestros ingresos y nuestros gastos, con un sistema tributario más justo, unas finanzas sostenibles y un presupuesto saneado. Gracias, entre otras cuestiones, al trabajo que hemos realizado para conseguir que otras instituciones apuesten por Laudio para invertir.

Podemos estar orgullosos y orgullosas de decir que el Gobierno Vasco, la Unión Europea y el resto de instituciones se hayan fijado en nuestro municipio para ejecutar inversiones o ayudarnos a financiar nuestros proyectos, habiendo logrado durante estos 4 años:

- Subvenciones autonómicas, estatales y europeas para proyectos tan importantes como el Antzoki, la remodelación de la plaza de Abastos, la renovación de nuestras redes de saneamiento o la rehabilitación de nuestro patrimonio.
- Atraer a Laudio inversiones de otras instituciones por más de 70 millones de euros, arrancando compromisos como la construcción del nuevo centro de salud, la renovación de la estación de tren, el encauzamiento del río Nervión o la sustitución del puente Altzarrate, entre otras.



eaj pnv

LAUDIO

2019-2023 aldiaren balantze hau amaitzeko, laudioar bakoitzari eskerrak eman nahi dizkiogu lortutako laguntzagatik eta Laudio eraldatzeko gugan konfiantza izateagatik.

Duela lau urte gure hitza eman genien bizilagunei, 129 ekintza eta lan-ildo biltzen zituen legegintzaldi-plan baten bidez. Gaur, gure ibilbide-orriaren ia % 90 osatu dugula esan dezakegu.
EAJ-PNVk bere hitza eta konpromisoak betetzen ditu.

Gure udalerria hobetzeko eta Laudio merezi duen lekuan jartzeko lan egiteko ilusioa, gogoa eta gaitasunak ditugu.

Queremos terminar este balance de lo que ha sido el periodo 2019-2023 dando las gracias a cada laudioarra por el apoyo obtenido y por confiar en nosotros y nosotras para transformar Laudio.

Hace cuatro años dimos nuestra palabra a nuestros vecinos y vecinas a través de un Plan de Legislatura que incluía 129 acciones y líneas de trabajo. Hoy, podemos decir que hemos completado cerca del 90 % de la hoja de ruta que nos marcamos. EAJ-PNV cumple su palabra y sus compromisos.

Tenemos la ilusión, las ganas y las capacidades necesarias para trabajar con el objetivo de mejorar nuestro municipio y poner Laudio en el lugar que se merece.

eaj pnv